

## Kultura

Familia osoarentzako 'Kixote' obraren estreinaldia hartuko du Zornotza Aretoak, gaur eta bihar > 11



**JAIK!**



## Durangaldearen esker ona jasota

Juanjo Moreno jesuitak eta Tabirako saskibaloitaldearen bultzatzaileak Durangaldearen berotasun eta esker ona jaso du Gerediaga Elkarteak emandako Teila sariagaz. > 10

Gerediaga Elkartea Txelu Angoiti.

## Julián Ríos Podemoseko idazkari Durangon

Riosek dioenez, asteleheneko batzarrean hasiko dira udal hauteskundeetara aurkeztuko diren eztabaidatzen. Aurkeztuz gero, plataforma sortuko lukete. > 2

## Gaztelekua eta skate pista egingo dituzte Elorrion

Aurtengo aurrekontuak onartu ditu Elorriko Udalak EAJren botoekin. Besteak beste, gaztelekua eta skate pista aurreikusi dituzte. > 3



## Favresse anaiak Mendiak Hurbilduz

Nicolás eta Olivier Favresse anaiak, Groenlandiara egindako espedizioaz jardun ostean, kontzertua emango dute datorren barikuan, Mendiak Hurbilduz jaialdian, Plateruenean. Aurretik, Atxarte Bizirik taldekoek hitzaldia eskainiko dute. > 13

**Chimeneas**  
Cerámicas  
**MACOBER**  
Sanitarias

**MACOBER**  
Inaugurazioa urtarrilaren 9an, 18:00etan  
Tronperri kalea, 1  
Zeramika eta gresa

**ITURRIAGA**  
**SUKALDEAK**  
Gremioen koordinaketa

Tranbaixosle, 2 - 46220 | Abadino - Tif. | Fax: 94 655 07 22 - 605 740 176

### Durango > 2

24 urteko gizonezkoa atxilotu dute neska-laguna jo duelakoan

### Durango > 2

PSE-EEko batzordeak dimititu ostean, gatazka azaleratu da

### Mallabia > 8

Euskararen erabilera bultzatzeko, Berbalagun proiektua martxan

### Iurreta > 6

Desanexioaren osteko lehen plenoa gogoratuko dute bihar



**Herririk herri**

## PSE-EEko batzordeak dimititu ostean, barne gatazka azaleratu da

Fernando Castilok eta bere ildokoek dimititu dute

**DURANGO** Markel Onaindia Durangoko PSE-EEen zatiketa gertatu da. Alderdiko batzordeak osorik dimititu du, eta, prentsan agertu ostean, barne gatazka azaleratu da. Azaro amaieran, udal hauteskundeetarako zerrendaburua aukeratzeko bozketa egin zuten, eta hautagai bi zeuden: Pilar Ríos eta Fernando Castillo Durangoko idazkari nagusia –biak zinegotzi dira gaur egun–. Riosek irabazi zuen primarioen lehia, boto biko aldeagaz. Baina Castilloren aldekoak ez ziren gustura geratu prozesuagaz, eta alderdian jakinarazi zuten. Euren arabera, bozketa aurreko egunetan alderdiko afiliatu kopurua 74tik 98ra igo zen, eta kide berri horiek Riosek berak inskribatu izana salatu dute. “Pertsona bakar ba-

tek ezin ditu 24 afiliatu ekarri”, esan du Castilok. Baina alderdiak ez du bere salaketa babestu. “Badakit hemendik pare bat urtera arrazola eman, eta afiliazioak legez kanpokoak zirela esango didatela”, adierazi du bozketaren gaitzaileak. Alderdiaren babesik barik, dimisioa eman zuten Castilok eta bere taldeak abenduaren 29an.

**Hausnarketa epean**

Korrante biren arteko talkaren ondorio da jazotakoa. Izan ere, Bizkaiko idazkaria izendatzeko hautagai desberdinak babestu zituzten Riosek eta Castilok. Dimisioa eman ondoren sortu den egoeran, bere ildokoak hausnarketa epe batean daudela azaldu du Castilok, eta gero hartuko dituztela erabakiak. Bere



Pilar Ríos eta Fernando Castillo, udalbatzar bateko irudian.

zinegotzi karguagaz zer egin, eta hauteskundeetarako zerrenda alternatiborik aurkeztu ala ez, horiek ei dira orain aztertu beharrekoak. Momentuz ez du bere iritzirik eman, “alderdiarekiko errespetuagatik”.

**“Kritika faltsuak”**

Riosek eta bere ildokoek ez dute adierazpen zuzenik egin gura izan, eta alderdiak hartu du hitza eurak babesteko: “Ez ditugu prozesuaren inguruko kritikak

onartzen, guztiz faltsuak eta oinarri bakoak direlako”. Primarioak gardentasunez garatu zirela adierazi dute, eta prozesu osoa Berme Batzordeak onartu

PSE-EEko arduradunek azaldu dute “alderdiaren babes osoa” daukala Pilar Riosek

zuela. Gainera, Afiliazioen eta Errolden Batzorde Federalak ere errolda begi onez ikusi zuela nabarmendu dute. Hori guztia kontuan hartuta, eta bozketa irabazle irten zela jakinda, PSE-EEko arduradunek azaldu dute “alderdiaren babes osoa” daukala Pilar Riosek.

Dimisioaren akta jaso dutela aitortu dute sozialistek. Hortaz, herriko eta herrialdeko kideak Durangorako batzorde berri bat osatzen hasiko dira elkarlanean.

## Podemos astelehenean hasiko da hauteskundeei buruz berba egiten

Durangon Julián Ríos aukeratu dute Podemos-Ahal Duguko idazkari

**DURANGO** M. Onaindia Elur-bolaren antzera, denbora pasa ahala handitzen dabil Podemos Ahal Dugu alderdiaren

eragina. Espainiako egitura orokorra zehaztuta, Pablo Iglesias idazkari nagusi dela, herrietako taldeei ofizialtasuna eman diete



Podemos Ahal Dugu osatzeko ekainean egindako lehenengo zirkulua.

orain, eta Durangon Julián Ríos aukeratu dute idazkari. Zientzia politikoetan lizentziatua eta gizarte hezitzailea da 41 urteko durangarra. Maiatzeko udal hauteskundeetara aurkeztu ala ez, hori da datozen asteetarako daukaten erroka, eta Riosek esan du astelehenean hasiko direla aztertzen: “Astelehenean izango da hurrengo zirkulua, eta bertan hasiko gara horretaz berba egiten. Eguneko gai garrantzitsuenetakoa izango da”.

Baina alderdiak erabakita dauka Podemosen izenean ez de-

la udal hauteskundeetara aurkeztuko. Horregatik, zirkuluak nahia agertzen badu, hautesplataforma bat sortu beharko du. “Herritar guztiei zabalduko hautesplataforma izango da, eta hautagai izan gura dutenek primarioak pasa beharko dituzte”, adierazi du Riosek. Onartu du ikusmina sortu dela, eta zundaketei buruz honako hau dio: “Podemos indarrez eta ilusioz sartu da, edukiengatik eta metodologiagatik: partaidetza eta justizia soziala lortzera goaz. Gizartean arazo jakinak daude, eta alderdiak ez dabilta sasoi honetara egokitzen”.

Ekainean osatu zuten Durangaldeko zirkulua. Azaroan 90 bat zeuden alderdian inskribatuta, baina zirkuluan edonork hartu ahal du parte.

## Genero indarkeria egotzita gizon bat atxilotu dute

**DURANGO** M.O.

Atzo goizaldean, 24 urteko gizon bat atxilotu zuen Ertzaintzak Durangon, bere bikotekidea jo izana egotzita. Goizeko 01:00 pasata, eraso baten berri izan zuten ertzainek, telefonoz. Etxera hurreratzean, emakume bat topatu zuten atarian, eta bere bikotekideak eztaba da baten erdian jo egin zuela azaldu zuen. Emakumea ihes egiten saiatu zen, eta borroka horretan ere zauritu egin zen. Udalak gaitzetsi egin du eraso. 016 da kasu horietan laguntza lortzeko telefona.

**Laguntzaileak:**

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-lurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2015eko urtarrilaren 9a,  
13. urtea - 572. alea

**Zuzendaria:**

Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Goretti Alonso  
Armendia, Amaia Huarte Basabe,  
Itxaso Altuna Marina.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso  
Esteban Urriaga, Joseba Derteano  
Bilbao, Markel Onaindia Txabarri  
eta Amaia Ugalde Begoña.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

# Gaztelekua eta skate pista egingo dituzte 2015eko aurrekontuagaz

EAJren aldeko botoekin bakarrik onartu dute 2015erako udal aurrekontua



Udalak 7,7 milioi euroko aurrekontua edukiko du aurtan.

**ELORRIO** Markel Onaindia Elorrioko Udalak badauka 2015erako udal aurrekontua, 7,7 milioi eurokoa. Udala ekonomikoki egonkortasun egoeran dagoela esan du gobernur taldeak, eta turismoa, gazteria, gizarte babesa eta genero ikuspegia bultzatzea dauka helburuen artean. Inbertsio esanguratsuenak hurrengoak dira: Aldapebeitia jauregiko teilatua konpontzea (335.000 euro), skate pista eraikitzea (50.000 euro), gazteleku bat zabaltzea (63.000 euro), Elizaldeko igerilekuak handitzea (30.000 euro), eta turismo jardunaldiak egitea (79.000 euro). Udalak herritarren iritzia kontuan hartu du

aurrekontuaren zati bat zehazteko, eta, horrela, 150.000 euro elorriarren ekarpenak betetzeko erabiliko ditu. Batzarrak eta kaleko inkestak egin dituzte iritzia batzeko; azaldu dute 130 lagunek parte hartu dutela, eta 70 ekarpen jaso dituztela.

Baina partaidetza prozesu hori da Bilduk kontra bozkatzearren arrazoietako bat. Koalizioaren ustez, kalean azaldu-takoa gobernu taldeak landu du, eta herritarren partaidetza sakonagoa gura zuten Bildukoek. Gainera, aurrekontua adosteko deitu ez izana egotzi diote EAJri. Ezarritako lehen-tasunekin ere ez daude ados, eta herrian skate pista baino

lehen-tasun garrantzitsuagoak daudela adierazi dute. Bestalde, proposatutako proiektu batzuk aurreikusitako diruagaz ezingo direla aurrera atera kritikatu dute koalizioek. Horren adibide ipini dituzte gaztelekurako inbertsioa ia 200.000 eurokoa izan beharko litzatekeela, eta karabanen aparkalekurako ere 1.000 euro bakarrik daudela.

PPko Carlos García abstenitu egin da. Udaltzaingoaren bulego berria eraikitzea, igerilekuak handitzea eta wifia doan eskaintzea ondo ikusi ditu, baina berak aurkeztutako batzuk faltan bota ditu: anbulantzia ipintzea eta harresia konpontzea, besteak beste.

## Esteibarlandako parkean estalkia ezartzeko, iritzia eskatu du udalak

**ELORRIO** M.O.

Esteibarlandako parkean estalki bat ipiniko du udalak, eguraldi txarra dagoenean herritarrek busti barik jolasteko aukera eduki dezaten. Estalkiaren obra egiteko lehiaketa hasi zuten urrian, eta enpresek egindako proposamenak jendaurrean erakutsi dituzte, herritarren iritzia jakiteko. Iturri kultur etxean dago erakusketa, eta bihar arte dago botoa emateko aukera. 18 urtetik gorako elorriar guztiek parte hartu ahal dute bozketan.

## Arespakotxagako obrak

Bestalde, Pujana jauregiaren eta Arriola kultur aretoaren ondoan dagoen Arespakotxaga parkean ere obrak egingo dituzte. Alde batetik, zorua aldatuko dute, eta, bestetik, lorategia berrituko dute. 25.000 euro erabiliko dituzte horretarako.

Ana Otadui alkateak azaldu duenez, elorriarrentzat "enblematikoa" den parke hori kontserbatu gura du udalak obraren bitartez. Horretaz gainera, espazioaren erosotasuna eta balio ludikoa zein estetikoa handitzea da udalaren helburua.

## Martxorako zabaldu gura dute Arreta Zerbitzua

**ELORRIO** M.O.

Hilabete honetan hasiko dira Herritarrentzako Arreta Zerbitzua atontzeko obrak, eta udalak ohar bidez adierazi du martxo amaierarako zerbitzua zabalik egotea aurrekusi duela. Udaletzeko beheko solairua egokituko dute zerbitzurako, orain arte udaltzainen, gizarte-zerbitzuen eta biltegiaren espazio izan dena, hain zuzen ere. 87 metro karratuko bulegoa izango da, eta arretarako

Udalak ohar bidez adierazi du martxo amaierarako zerbitzua zabalik egotea aurrekusi duela

lekua, itxarongela, baztar gelak eta komunak edukiko ditu. 128.000 euro inbertitu dituzte egitasmoan. Horretaz gainera, udaletzeko berogailu sistema aldatzeko ere aprobetxatuko dute obra, 70.000 euroko kostuagaz.

Bestalde, udaltzainen bulegoa Buskantz kalera lekualdatu dute, eta hilabete honetan bertan martxan egotea aurrekusi dute.

## Zapatuan Sahararen aldeko Gaztainerre jaia egingo dute

Gaztainak banatuko dituzte kilo bat janariaren truke

**BERRIZ** Amaia Ugalde

Saharako errefuxiatuei laguntzeko elikagai bilketa egiten dabilta Berrizen, eta, bilketaz gainera, sentsibiliaziorako egun berezia antolatu dute zapatu honetarako. Goizean, Udal Kontseiluko kideak dendarik denda ibiliko dira elikagai bilketaren

berri ematen. Arratsaldean, berriz, Gaztainerre jaia eta Sahararako musikarien kontzertua izango dituzte.

Urtero egiten dute Gaztainerre jaia Berrizen, baina aurtengo berezia izango da. Gaztainerre kilo bat janari eman beharko du-

te, eta Saharara bideratuko da batutako janaria. 18:00etan hasiko da banaketa Olakueta plazan, eta, gaztainak jan bitartean, Almofid Ahmed Sidi abeslariak eta Asalak Alhasan Mohamed gitarra-jotzaileak kontzertua eskainiko dute.

Ia hogeitaz urte dira Berrizen Saharako errefuxiatuen aldeko beharra egiten dutela. Udal Kontseiluak Herria elkartegaz egiten du orain elikagai bilketa. Hilaren 18ra arte egingo dute bilketa, udaletxean, eskoletan eta dendetan.



Urtean, batez beste, 900 kilo elikagai batu dituzte azken 8 urteetan.

## Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.

Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.

Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua. Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.

Interneten bereizten gaituen puntua.

Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.

Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.

Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago [www.domeinuak.eus](http://www.domeinuak.eus) webgunean

**Hemen duzu zure puntu berria**



**gure domeinua**



# Amankomunazgoko langileek “akordioak betetzeko” eskatu dute

Lanpostuen balorazioa egiteko ardura duen batzordean erabakitako akordioak onartzeko eskatu dute; Zarrabeitia presidentek dio azterketa ez dagoela amaituta



Amankomunazgoko langileak, abenduan egindako urteko azken udalbatzarrean.

## DURANGALDEA J.D.

Abenduko azken udalbatzarrean Durangaldeko Amankomunazgoko hamabi langile udalbatzarrerera sartu ziren, eta protesta isila egin zuten. Amankomunazgoko langileen organigrama eta funtzioak berritzeko helburuz sortutako Balorazio Batzordeak 2014an egindako lanetan “erabakitako akordioak” bete daitezela eskatzea izan zen protestaren helburua. Langile horien esanetan, departamendu guztietako ordezkariak batu ziren udalbatzarrean.

Ohar bidez azaldu dituzte protestarako dituzten arrazoiak: “Kargu politikoei, errespetu osoz, Balorazio Batzordeak erabakitako akordioak aurrera eroatea eskatzen diegu; lortutako akordioekiko erantzukizuna eskatzen dugu, eta akordio horiek udalbatzarrean onartu daitezela”. Gogoratu zuten, “Amankomunazgoko udalerriak diren Durangon, Elorrian, Zaldibarren eta Atxondon har-

tutako erabakiak exekutatu dituzte, eta horretarako asmoa dago Iurretan eta Mañarian ere”. Euren kasuan, aldiz, urtebeteko negoziazioen ostean, “zailtasunak sortu dira azken unean, eta horiek politikoki konpondu” behar direla uste dute, “beste udalerrri batzuetan gertatu den moduan”.

Amankomunazgoko presidente Oskar Zarrabeitiak adierazi duenez, “errespetatzen dugu langileen protesta, baina harritu egin gintuen”. Izan ere, “langileekin gertuko harremana dugu, eta gure ateak irekita daude edozein gai tratatzeko”.

Zarrabeitiaren hitzetan, oraindik ezin da erabakirik udalbatzarrerera eroan, azterketa ez dagoelako amaituta: “2014an lanpostuen balorazioa aztertzen jardun du batzordeak, baina ez da azterketa osorik amaitzeko denborarik egon”. Baina urtarrietatik aurrera “berriro gai horri helduko diogu, betiere lege-diaren markoa errespetatuta”.

# Bilboko mobilizaziora joatera deitu du Sarek, sakabanaketagaz amaitzeko

17:30ean abiatuko da mobilizazioa, zutabe bitan, udaletxetik eta Casilla plazatik

**DURANGALDEA** M. Onaindia *Now Euskal Herrira*. Hori da Sare mugimenduak biharko mobilizaziorako aukeratu duen leloa. Euskal presoen sakabanaketa amaitzea exijituko dute Bilboko kaleetan, eta eskaera

horri nazioartean indarra emateko ingelesezko *now* berba erabiliko dute, euskaraz *orain* terminoaren baliokidea dena. 17:30ean abiatuko da mobilizazioa, zutabe bitan, udaletxetik eta Casilla plaza ingurutik.

Zabalburu plazan amaituko da protesta, ekitaldi batez. Elkarretaratzerako deialdia egin du Sarek herririk herri, eta horren adibide da joan zen zapatuan Durangon atera zuten argazkia: mosaiko bat osatu zuten.

Sakabanaketa politika amaitzeko lehentasuna dauka Sarek, boluntario diren sarekideen bidez, gai hori lantzen duen liburuxka banatzen dabil.

## Argiak piztuta

Mobilizazioaren bultzatzaileek adierazi dute argi dutela sakabanaketagaz amaitzeko ordua heldu dela. Hori erakusteko, ekintza berezia egingo dute bihar, Bilbon. Ibilbidean zehar argiak banatuko dizkiete parte-hartzaileei, eta ekitaldiko une batean horiek isiotzeko eskatuko diete.



Durangon, Sare mugimenduaren deialdia babesteko argazkia.

## Abadiñoko Udalera deitzeko aukera berria: 010 zenbakia

### ABADIÑO Itsaso Esteban

Urte hasieratik telefono linea berria dauka martxan Abadiñoko Udalak: 010 zenbakiduna, hain zuzen ere. Urtarrilaren 2tik, herriko edozein telefonotatik 010 markatzea nahikoa da udaletxera deitzeko. Telefono zenbaki berria egon arren, orain arteko lineak ere erabilgarri egoten jarraituko dutela azpimarratu dute udaleko bozeroaleek.

Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, “linea honegaz Abadiñoko Udalak beste urrats bat eman nahi du gardentasuna handitzeko eta herritarrengandik hurbilago egoteko: erraz gogoratzeko moduko zenbakia da, eta lagungarria izan daiteke herritar askorentzat, udaletxeko zenbakia eskura ez daukatenean”.

## Loteria eta Bono Lotoa, biak aste berean, Traña-Matienan

### ABADIÑO Jone Guenetxea

Traña-Matienan auzoan zorte onagaz abiatu dute 2015. urtea. Errege eguneko loteriarren bigarren saria saldu dute San Prudentzioko administrazioan, eta Bono Loto lehiaketaren 104.539 euroko saria duen txartela Petite liburu dendan zigilatuta dute. Txartelaren jabeak, guztira, 104.539 euro eraman ditu poltsikora bost zenbaki eta osagarria asmatu eta gero. Martin eta Mikel Petite aita-emekek pozik hartu zuten sariaren berria.

Traña-Matienako administrazioan, aldiz, Errege eguneko loteriarren bigarren sariako 40 dezimo saldu dituzte. 43.743 zenbakiak bost milioi eta erdiko saria izan du, guztira, eta Abadiñon hiru milioi banatu dira.

**hitz** liburutegia

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburutegia.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

--	--	--

Grupo CATALANA OCCIDENTE

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

**BODEGUILLA**

**TRAÑA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85





# GREMIOEN GIDA

 **DEKORAZIOA**

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialden, 45 Garain A - Berriz  
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421  
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

 **GARBIKETA**

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatua eta abar  
Goietak, 10 - 2 esk. - ELORRIO  
Tel.: 946 820 991

 **LOREZAINNTZA**

*Jardines Patxi Lokategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. ezk PATXI  
48200 DURANGO 696 463 085

 **ITURGINTZA**

**urtiaga**  
Proiektu eta Erreformak, S.L.  
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU AZULEJU, ZOLADURA, TEJILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI! ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solagurua kalea 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374  
Emaila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

**Mallabiena**  
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com



**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak zure zerbitzura!**

# Desanexioaren osteko lehen osoko bilkura gogoratuko dute

Iurretak duela 25 urte berreskuratu zuen herri izaera

**IURRETA** Amaia Ugalde

Duela 25 urte, 1990eko urtarrilaren 10ean egin zuten Iurretan desanexioaren osteko lehen osoko bilkura. Data hori gogoratuko dute bihar, Iurretan, 11:00etatik aurrera. Osoko bilkura berezian, adierazpen instituzionala irakurriko dute, duela 25 urteko konpromisoak berresteko, eta, gero, Elizateko batzarrak sinbolizatzen dituen harrizko mahai bat ipiniko dute elizpean.

Adierazpen instituzionalaren bidez, desanexioaren arrazoiak eta orduan hartutako konpromisoak “indarrean” daudela azalduko dute, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan. Totorikaguena herri izaera berreskuratzean edukitako helburuak gogoratu ditu: “Herritarren beharrezatetik hurbilago egotea, baliabide publikoak hobeto kudeatzeko

udalerrri orekatu bat izatea eta zerbitzu publikoak herritarrei hurreratzea”. Zapatuan, adierazpena irakurri eta gero, elizateko mahaia ipiniko dute elizpean; izan ere, antzina, elizateetan, eliza aurrean eta mahai baten bueltan lantzen ziren gai publikoak batzarretan. Batzar horiek sinbolizatzeke, harrizko mahaia ipiniko dute elizpean, plaka batez.

**1989: txapliguak Durangon** Desanexioa bultzatzeko lehen gestora 1983an sortu zen, Iurre-



**“Negoziazioak gogorak izan ziren”**

MIKEL SOPELANA

tan. Harrezkero, “negoziazio gogorak” izan zirela gogoratu du Mikel Sopelana gestorako ki-



Duela 25 urte, Iurretako elizpean egin zuten botere eskualdatze ekitaldia. FotoSol

de izandakoak. Diru kontuek eta muga geografikoek –Orozketan eta Landakon– eragin zituzten buruko min handienak. Sopelanaren ustez, 1991ko urtarrilekoa baino data gogoangarriagoa da 1989ko maiatzaren 23koa. Egun horretan, Durangoko Udalak desanexiorako puntuak onartu zituen osoko bilkuran: “Udalbatza iurretarez bete genuen, eta txapliguak eta guzti bota genituen gero, Durangoko udaletxeko balkoitik”. Ilusio handiko urteak izan ziren, Sopelanaren arabera.

**25. urteurreneko irudia**

2015ean irudi berezi bat erabili du Iurretako Udalak, urteurrenearen harira sortutakoa. Iurretako armariaren bertsio bat da, magenta kolorean sintetizatua, eta, zuhaitzagaz eta dorreagaz batera, Iurretako banderaren izarra dauka barnean. 25. urteurrenean erabiliko da marka hori, eta, urtea amaitu ostean, irudi berriagaz jarraituko duten edo ez erabaki barik dagoela azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak.

## Datozen hiru urteetarako II. Euskara Plana onartu du udalak

**IURRETA** A.U.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu du, bigarrenagoz, Iurretako udalbatzarrak. Hainbat helburu finkatu ditu 2015-2017 aldirako.

Jaurjaritzaren irizpideen arabera, Iurretako Udalak %60,05eko indizea bete behar du. Horretarako, helburu orokor batzuk finkatu ditu udalak.

Herritarrei begira, euskara zerbitzu-hizkuntza izatea bermatu gura du udalak esparru guztietan

Tartean, herritarrei begira, euskara zerbitzu-hizkuntza izatea bermatu gura du esparru guztietan. Gainera, idatzizko erabilera ere areagotu gura du, itzulpenetatik harago, eta langileen artean eta administrazioekin dituen harremanetan lan hizkuntza izateko pausoa ere eman nahi du.

## 4.000 euro batu dituzte abenduko jaialdi solidarioran

Umeen minbizia ikertzera bideratuko da dirua

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Zornotzako Ogenbarrena auzoko ostalari eta merkatarien Hezetan elkarteak jaialdi solidarioa antolatu zuen abenduko bigarren asteburuan. Minbizia duten seme-alaben gurasoek sortutako Pequeropa elkarteari laguntzeko diru-bilketa egitea zuten helburu. Guztira, 4.000 euro batu zituztela jakinarazi dute, eta elkarteari eman dizkiote.

Asteburu horretako ekitaldirik jendetsuena Maletatzar Solidarioa izeneko herri laster-

keta izan zen: 400 partaide izan zituen ekimenak. Maletan 95 kilo zeramatzen parte-hartzaile batek irabazi zuen lasterketa.

**Nagusien diru-bilketa**

Bestalde, Jose María Azkuna egoitzako nagusiek 740 euro batu dituzte, eta Zornotzako Caritansi eman dizkiote. Diru hori lortzeko, batetik, txartelak saldu zituzten, ondoren Gabonetako saskia zozkatzeko, eta, bestetik, azoka txiki solidarioa antolatu zuten.



Maletatzar Solidarioa herri lasterketan hartutako irudi bat.

## Elikagaien kudeaketari buruzko gogoeta bihar, Zelaietan

**ZORNOTZA** J.D.

Euskal Herrian, elikadura burujabetzaren inguruan eraikitzen dabilzan esperientzia eta alternatibaren gainera hausnarketa eta eztabaida proposatzen dituen jardunaldiak egongo dira bihar, Zelaieta zentroan. Amorebieta-Etxano Iraunkor taldeak antolatu ditu jardunaldiak, Zornotza Eraldatuz herri ekimenaren laguntzagaz.

Bihar, 10:40an, **Bide berriak: elikadura Euskal Herrian** dokumentaleko zuzendari Mari-txu Arroyok dokumentalaren gainera nondik norakoak azalduko ditu. Ondoren, 11:00etan dokumentala ikusteko aukera egongo da. Dokumentalaren bidez, Euskal Herrian dagoen eredu agroindustrialak maila sozialean, ekonomian zein ingurumenean eragiten dituen ondorioak erakutsi nahi dituzte. Horren aurrean, dokumentalak bertako nahiz munduko nekazaritza sektoretik eraikitzen dabilzan alternatiba nabarmentzen du: elikadura burujabea. Azkenik, 12:00etan eztabaidarako tarte irekiko dute.

## 100 urte bete dituen Daniel Legorburu omendu dute

Abenduaren 28an, urtegunean, izan zen omenaldia

**ZORNOTZA** J.D.

Abenduaren 28an 100 urte egin zituen Daniel Legorburu etxanotarrak, eta, hori ospatzeko, omenaldia antolatu zion Etxanoko auzokideen elkarteak.

Gure-Etxea nagusien egoitzako aretoan ehun lagunetik gora batu ziren omenaldi ekitaldira. Auzokideak ez ezik, Legorbururen hamabi nebarrebetatik bizirik dauden anaia biek ere, José Legorburuk (95 urte) eta Agustín Legor-

buruk (86 urte), bertatik bertara jarraitu zuten ekitaldia.

Lehenengo Etxanoko dantza taldearen eta Amaia Aurrekoetxea bertsolariaren saioak izan ziren. Ondoren, Etxanoko auzokideen elkarteako presidente Paskual Uriartek opari bat eman zion Legorbururi elkartearen izenean: bere izen-abizenak eta urteguna bordatuta zituen txapel bat. Legorburuk hunkituta eta esker onez jaso zuen oparia.



Daniel Legorburu eskuman, Agustín anaiagaz.



# “Umeen ikasketa arazo askoren atzean ikusmen arazoak daude”

Begien terapia lantzen dute Landako optikan; ikusmen abilezia indartuz gero, irakurmenean hobekuntza nabarmenak izaten dituzte



Sarritan, gaztetxoek egoki garatzen dute ahozko hizkuntza, baina, hala ere, ikasteko edo irakurtzeko arazoak izaten dituzte. Kasu askotan, arazo horien atzean ikusmen arazo bat egoten da. Landako optikan begien terapia landu, eta arazo horiek gainditzen laguntzen dute. “Ikasketak ikusmenagaz oso lotuta daude. Ikasten duenaren %75etik %90era ikusmenaren bitartez heltzen zaio umeari”, azaldu du Lourdes Arrizabalaga optiko optometristak.

Ikusmen binokularra edukitzea, enfokatzeko gai izatea, begien mugimenduak zehatzak

izatea eta ikusmenaren pertzepzioa edukitzea ezaugarri garrantzitsuak dira ikasketetan zailtasunik ez izateko. Eskola-porrotaren inguruko datuek ez dute zalantzarako tarterik uzten: aztertutako lau kasutatik hirutan eskola-porrota ikusmenaren inguruko arazoaren ondorio da.

## Seinaleak

Lehen Hezkuntzako bigarren mailan, umeak irakurtzen ikasten hasten direnean agertzen dira lehenengo seinaleak. Umea liburura gehiegi hurbiltzen bada, irakurtzerakoan edo idazterakoan burua gehiegi okertzen ba-

du, begi bat tapatu edo okertzen badu hurbileko lanetan, lauso edo bikoitz ikusten badu, edo irakurtzen duena ez badu ulertzen, gurasoek ahalik eta arinen jo beharko lukete terapia bisual bidezko tratamendu batera.

2. LHn, umeak irakurtzen hasten direnean agertzen dira lehenengo seinaleak

## Begien terapia

Begien terapia optometriaren atal bat da, eta pertsonen ikus-

men abileziak indartzeaz eta hobetzeaz arduratzen da.

Landako optikako profesionalak begien azterketa egiten dute lehenik eta behin. Begien mugikortasuna, fusioa eta egokiera aztertzen dituzte. “Azterketa egin eta gero, tratamendu pertsonalizatuak ematen ditugu”, adierazi du Mainer Llanos optikako arduradunak. Kasu gehienetan, gainera, arazoak konpondu egiten dira, hiru hilabete inguruan, astean egun batez, optikan ariketak eginez gero eta etxean ere arazoa lantzen bada. Ariketa horiek begi alferra eta estrabismoa konpontzeko ere balio dute.

## ORDUTEGIA

Asteleheneetik ostiralera:  
**09:30etik - 13:00etara**  
**16:30etik - 20:00etara**  
 Zapatu goizetan.

## HELBIDEA

Juan Mari Altuna, 22  
**Durango**

## KONTAKTUA

Tel.: **946 814 999**  
 landako.optika@gmail.com  
 f landakooptika

Landako optikak, ohiko optika denda bateko zerbitzuez gainera, beste aukera batzuk eskaintzen ditu. Durangon, berritzailea da optometriaren esparruan. Ikasteko arazoaren gainean ohartarazten dute, eta gaitz horiek tratatzen dituzte, ikusmen disfuntzioak aintzat hartuta.

## GRADUZAZIOAK

## BEGIEN AZTERKETA

## UMEEN OPTOMETRIA

## BEGIEN TERAPIA

## UKIPEN LENTEAK

## TONOMETRIAK

## TOPOGRAFIK

## IKUSMEN URRITASUNA

## AUDIOLOGIA





# Berbalagun egitasmoa martxan, euskararen erabilera bultzatzeko

Berbalagun talde bi sortzeaz gainera, Gurasolagun proiektua abiatuko dute



AEKn diharduten ikasleen argazkia.

**MALLABIA** Jone Guenetxea Euskararen erabilera bultzatu guran, Berbalagun egitasmoa jarriko dute martxan Mallabian. Juanmi Bravo AEK-ko irakasleak eta praktika egitasmoaren arduradunak azaldu duenez, "baserri auzoetan ez bezala, herrigunean euskararen erabileraren beherakada nabarmena izan da azken urteotan, herrira bizitzera etorritako jendea dela-eta". Gaineratu duenez, azken bi hamarkadetan hainbat herritarrek ikasi dute bertako

euskara ikastaldeetan. "Egun, ikasle hauen helburua kalean eta bertako herritarrekin euskara erabiltzea da". Ohiturak aldatzea, berriz, ez da erraza. Izan ere, pertsona horien orain arteko harremanetarako hizkuntza gaztelania izan da, baita euskaldunekin ere.

Ohitura horiek aldatu guran, Berbalagun egitasmoaren erronkak ekintza zehatzetan oinarritu dituztela jakinarazi dute. Herrian astean behin bilduko diren bi berbatalde sortuko

dituzte. Bata goizez arituko da, eta bestea, berriz, arratsaldean. Era berean, Mallabiko eskolan Gurasolagun talde bat sortzeko asmoa dute.

## Hainbat ekintza

Urtean barrena berbataldeetan jarduteaz gainera, sei ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute: eskolan hitzaldi bat, kultur etxean ikastaro bat, hiru berba afari eta ekainerako mintzodromoa antolatuko dituzte, besteak beste.

## Erremata egingo dute, Caritasi diruz laguntzeko

Baserriko produktu eta animaliak, enkantean

**GARAI** Markel Onaindia Hurrengo zapatuan, urtarriaren 17an, Erremataren beste edizio bat egingo dute Garain. Baserriko produktu eta animaliak enkantean ipiniko dituzte, eta jasotako diruagaz ekarpen solidarioa egingo dute. Izan ere, jasotako diruaren erdia Caritasi emango diote, eta beste erdia parrokan geratuko da, mantentze-lanetako gastuetarako.

Goizeko 11:30ean meza egongo da Elizabarrin -iazatik ordu erdi aurreratu dute, ekitaldia lar berandutzen zela-eta-, eta ostean hasiko da enkantea. Gainera, elizkizunaren amaieran, produktuak eta inguruko lurak bedeinkatuko ditu abadeak.

San Anton eguneko ekitaldi honetan, baserritarrek dohain-

tzan ematen dituzte produktuak eta animaliak. Txorizoak, esnea, arrautzak eta untxiak egoten dira eskura, adibidez. Enkantera hurreratzen direnen artean, diru kopuru altuena proposatzen duenak eroaten du produktua etxera. Iaz 1.400 euro jaso ziren guztira.

Diruaren erdia Caritasi emango diote, eta beste erdia parrokan geratuko da, mantentze-lanetarako

## Autoak ezingo dira Autonomia kaletik ibili aste barruan

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban

Autoak ezingo dira eskola ondoko Autonomia kaletik ibili aurrerantzean, astelehenetik barikura. Eskolara bide horretatik joaten diren oinezkoak babesteko neurria da Zaldibarko Udalak hartu duen hori. "Autonomia kalearen zati batean ez dago espaloirik, eta ume eta heldu askok egiten du eskolara joan-etorria bertatik, eta autoen trafikoak arrisku-tsu egiten zuen egoera", azaldu du Arantza Baigorri alkateak. "Eskolarako bidea herritar guztientzako segurtasun handiko gunea izan behar dela uste dugu, eta horregatik erabaki dugu neurri hori hartzea", azpimarratu du alkateak.

Asteburuetan, eskolarik ez dagoen egunetan, baimenduta egongo da autoen zirkulazioa.

## Gaztetxeak 500 kilo elikagaitik gora jaso ditu JAEDi laguntzeko

**ATXONDO** Joseba Derteano

Iazko abenduan gaztetxeak janari bilketa solidarioa egin zuten bigarren bider; gainera, jostailuak ere batu zituzten lehenengoz. Abenduan, hiru egunez egon ziren udaletxearen ondoan, herritarren ekarpenak jasotzen. 2013an 400 kilo elikagai batu zituzten, eta aurtengo aldian 500 kilotik gora jaso dituzte. Horretaz gainera, askotariko 60 bat jostailu ere jaso dituzte: bizikleta bat, panpinak eta karta jokoak, adibidez. "Herritarrek gure deiarri erantzun diote, eta bilketak izan duen erantzunagaz oso pozik gaude", adierazi du gazte asanbladako Kike Bilbaok. Batutako guztia Durangaldeko JAED elkarteari eman diote.

## SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ



## 6.469 arrazoi

Joan jakuz Gabonetako jaiak, igaro dira urteko azken egunak eta urte barriko hasierakoak. Jaso izan doguz gure herrian Olentzero eta Mari Domingi, baita Errege magoak be. Euren zakuak itxaropenez gainezka. Egun hauetan umeen begietara begiratzea esperientzia ederra bilakatzeko da urte osoan etorriko diren gorabehera guztiak jarraera egokiagaz gureganatzeko.

Aurten be abagune politak izan doguz gure Udalerrian egoera latzean bizi diren andragizonei elkartasuna erakusteko. Besteak beste, Stop Sanfilipporen aldeko txapelketa edota Durango Kirolakek prestatutako maratoni solidarioak. Urtero legez, JAEDek antolatutako zozketak izugarriko arrakasta eduki dau. Nork ez dau erosi txartelen bat edo dozena bat? Urtero-urtero egiten dabena ahalegin nekaz, sei mila pertsonen bano gehiagok aukera izan dabe Landako erakustazokan izotz gainean patinatzeko eta, noski, ederto pasatzeko. Umeak, gazteak eta helduak. Orain hamar urte jaio zan jarduera hau gure herrian, orduko alkatearen eta Kirol zinegotziaren ekimenez, eta, oztopo guztiak gaindituz (kontrakotasunak, oposizioaren kritikak etab.), aurrera egin dau. Ekimen arrakastatsua, ekimen oparoa. Sasi guztien gainetik, pertsona da ardatza. 6.469 pertsona, 6.469 arrazoi.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK  
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - lurreta  
www.zarateyexpe.com

**SERRATU, S.L**

GALDARAGINTZA  
ETA ITXIERAK

gure bezeroen zerbitzura

Astola, 48 48220 ABADIÑO / Bizkaia  
Tel.: 946 201 837 - Faxes: 946 818 635 - serratu@serratu.com  
www.serratu.com



# 600 lagunek bisitatu dute dagoeneko Hontza natur zientzien museoa

Hontza museoan 'Nautilus pompilius' espezieko pieza bat egongo da ikusgai

**MAÑARIA** Markel Onaindia azaroaren 24an zabaldu, eta hilabete bi ere pasa ez direnean. Hontza Durangaldeko Natur Zientzien Museoak 600 lagun bisita jaso du dagoeneko, Enrike Huerta museoko presidentek adierazi du, "egin duen



Huerta, museoan, eskuratu berri duen pieza garbitzen.

eguraldia ikusita, nahiko ondo" dagoela kopuru hori. Lagun-taldeak eta nagusien taldeak joan dira batez ere, eta udaberrirako eskola umeak etortzea aurreikusitua du. Museoagaz batera, ikasleei herria ezagutzeko aukera eskaintzea ere aztertzen dabil-tza museokoak. Astegunetan 17:00etatik 19:00etara dago zabalik, eta zapatu eta jaiegunetan goizez ere bai.

## Beste pieza bat

*Oskoldunak* izeneko erakusketa martxan dago Hontza museoan, eta hemendik aurrera beste pieza bat egongo da ikusgai. Izan ere, Donostiako Aquariumak *Nautilus pompilius* espezieko muskuilu bat eman dio dohaintzan. Muskuilu berezia da, kanpoko maskorra daroan bakarretakoa delako bere sailan.

# Eguenetako Klubagaz zelan jarraitu erabakiko dute

Harremani eusteko bilgune aproposa dela uste dute

**IZURTZA** J.D. Eguenetako Klubaren sustatzaile nagusi izan den Cristina Morak taldea utzi du, Miguel Delibes idazlearen gaineko *Nadie llora a Don Ambrosio* antze-laneko gidoilari eta zuzendari zereginetan lanpetuta dabilelako. Beraz, Eguenetako Klubeko lagunak datorren egunean batzartuko dira, klubagaz zelan jarraitu erabakitzeko: "Ez dakigu zelako egituragaz, baina batzen jarraituko dugu, hartu-

emanak mantentzeko gune ona delako", esan du klubeko Toñi Jimenezek.

Bitano kultur elkarteko Cristina Moraren ekimenez, orain lau urte sortu zuten Eguenetako Kluba. Izurtzarren arteko hartu-emanak sendotzea zuen helburu, askotariko ikastaroak antolatuta. Jubilatuen egoitzan batu izan dira, eta, jubilatuekin hasi bazen ere, denbora joan ahala, adin askotako jendea batu da eguenetako hitzordura.

# Ekintzaileei laguntzeko aholkularitza eskainiko dute

**OTXANDIO** J. Derteano Zuiako kuadrillak ekintzaileei laguntzeko programa bat abiatuko du urtarrilean. Programa horren bidez, aholkularitza eta turoretza eskainiko diete enpresa bat sortu dutenei edo enpresa bat sortzeko asmoa dutenei. Edozein sektoretako enpresa berriei bideratuta egongo da.

Zuiako kuadrillak ekintzaileentzako aholkularitza programa abiatuko du urtarrilean

Aurten hirugarren aldiz ipiniko dute martxan ekintzaileei laguntzeko programa, urtarrilean hasi eta maiatz ingurura arte. Izan ere, orain urte batzuk egindako Enplegu Planean irtendako ondorioetako bat ekintzaileei euren proiektuak aurrera ateratzen laguntzeko beharrezana dagoela izan zen. Orain arte martxan jarritako programek harrera ona izan dute, eta horregatik erabaki dute aurten ere errepikatzea.

Zuiako kuadrilla Aramaio, Arrazua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia herriek osatzen dute, baina Otxandio ere badago Enplegu Planaren barruan.

## > DURANGALDEA ASTEON

### JAEDen zozketako autoa, 28.905ari

**DURANGO** > 28.905 zenbakiaren jabeari egokitu zaio JAEDek zozketaturiko Citroen C4 autoa. Beste urte batez, martitzen honetako zozketa solidarioak ikusmin handia eragin du Durangoko Andra Mariko elizpean. 54.700 txartel saldu dituzte aurten. ANBOTOn webgunean dago zenbaki sari-dun guztien zerrenda.

### Gurasoentzako bost ikastaro

**DURANGALDEA** > Amankomugazgoak hainbat ikastaro abiatuko ditu otsailaren lehen astean. Ikastaroak gurasoei zein helduei bideratuta daude. Gaiak droga-mendekotasuna, osasuna, familiaren komunikazioa eta gatazken irtenbideak izango dira. Urtarrilaren 16ra arte eman daiteke izena telefono honetan: 946 200 520.

### Deskontua Elorrioko kiroldegian

**ELORRIO** > Elorrioko kiroldegiko abonua integrala egite-rakoan (gimnasioa eta igerilekua) matrikulako 40 euroak aurrezteko eskaintza dago urtarrilaren 15era arte. Urteko bonua, berriz, 175,74 euro da, eta epeka ordaindu daiteke. Bestalde, gaur, 19:30etik aurrera dantza karibetarra ikastaroa dohainik probatu daiteke.

## **Iritzia**

### Udalak gure beharrari lepoa eman dio, gure espazio bile jarraitzen dogu

Urte berri on, Durango! Bi hilabete pasatu dira gazte andana batu ginetik udaletxe parean, eta Durangoko alkateari gure beharraren berri eman genionetik; udalaren partetik erantzun bat jasotzeko denbora nahikoa eta sobera.

Aitziber Irigoras alkateari entregatu genion eskari horren bidez, Durangoko gazteok ditugun premien berri eman genion, eta beharrezan hauek asetzeko espazio baten beharra aldarrikatu genuen. Horretarako, lehen pauso gisa, Baguez gure espazio bile dinamikako kideekin batera abendua-ren hasiera baino lehenagorako bilkura bat antolatzeko deia luzatu genion alkateari.

Bi hilabete pasatu dira ordutik hona, baina ez dugu erantzunik jaso. Udalaren erantzukizuna herritarren beharrei erantzutea den arren, lepoa eman dio Durangoko gazteon beharrari. Jarrera hau ikusita, argi dugu gure nahien aurrean udalak duen interesa zein den.

Udalak herriko gazteoi entzungor egin badigu ere, gure espazio bile jarraituko dugu: harremanak izateko, ikasteko, sortzeko... eta Durango pizteko! Erne gazte, urte berri hasiera hau erabakigarria izango baita gazteontzako espazioa lortzeko bidean.

Baguez gure espazio bile, bazatuz?

Baguez Gure Espazio Bile dinamikako kideak  
Anes Baños, Julene Conde, Olatz Berasategi, Oier Iturrigaga, Karolina Suarez, Ainhoa Olaso, Eduarte Landaluze, Asier Angulo, Julen Urrutibeaskoa, Amaia Iraeta, Iratxe Delgado, Martin Loizate, Maixa Villanueva, Julene Egiluz, Amaia Baseta, Elene Landia, Ainhoa Olaso Sopelana eta beste hamaika.



**astekaria@anboto.org**  
astearte 17:00ak arteko epea

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - lurreta  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).




## **Berbaz**

Juanjo Moreno | Jesuita | Bilbo, 1939

# “*Gerediaga Elkartearengandik saria jasotzeak gainezka egin dit*”

Juanjo Moreno Tabirako saskibaloitzailearen bultzatzaileak jaso du aurten Gerediaga Elkartearen Teila saria



Gerediaga Elkartea. Txelu Angoitia.

**> BERBAZ** Jone Guenetxea  
Juanjo Moreno Tabirako saskibaloitzailearen aita dela esan daiteke. Taldea entrenatzen hasi zenean, Tabirakok herriko harrobia behar zuela hartu zuen aldarri. Ia bost hamarkada geroago, taldeak 662 jokalaritari eta 120 entrenatzaile ditu. Duela lau urte Tuterara bidali zuten gizarteratze proiektu batera. Hala ere, Durangaldea barru-barruan darama.

Zelan heldu zinen Durangora? Batxilergoa Bilbon, Indautxuko Jesuitetan ikasi nuen. Kimika ikastera Zaragozara joan nintzen, eta saskibaloian jokatzeko nuen. Jesuiten ikastetxe nagusian nongoen, eta bertako Jesuiten taldea entrenatzen nuen. Horrela, Vicente Zabalak, beranduago San Faustoko parrokoa izan zenak, entrenatzaile izateko fitxatu ninduen. Ikasketak amaitzean, Loiolara joan nintzen, filosofia ikastera. Bigarren urtean, 1965ean, Vicente Zabalak asteburuetan Durangora entrenatzera etortzeko eskaintza egin zidan. Beranduago Durangora etorri nintzen.

Sasoi hartan, Tabirako saskibaloitzaile taldea sortuta zegoen arren, bultzada handia eman zenion. Heldu nintzenez, 28 urte nituen. Beraiekin jokatu nezan gura zuten. Argi nuen Tabirakok meritu handia zuela, baina behar zuena harrobia zela. Nire

“*Taldea norbera baino gehiago dela transmititu gura izan genuen*”

papera jokalaritza izatea baino entrenatzaile izatea izan behar zela ikusi nuen. Gainera, entrenatzaile tituluak nituen, eta esperientzia nuen. Zaragozan zaletasun eta gogo handia zuen jendeagaz elkartu nintzen, eta gorengo mailara igo ginen. Madrilen eta Bartzelonaren kontra jokatu genuen hainbat urtetan. Era berean, laguntasuna eta boluntariotzaren esperientzia bizi izan nituen han, eta balio handia ematen nion. Tabirakon ziharduen jendeagaz ere balio horiek bat egiten zute-

la ikusi nuen. Horrela, gehiago entrenatzen hasi ginen, eta baita etxeko entrenatzaileak hezten ere.

**Zelako balioak igorri gura izan zenituen Tabirakon egon zinen sasoiaren?**

Taldea norbera baino gehiago dela transmititu gura izan nuen. Manchester United taldeak lelo bat du, eta hau dio: *Hemen garrantzia gutxien duena ni naiz, eta garrantzitsuenak gu gara*. Talde espiritua. Entrenamenduetara garaiz heltzea, talde duintasunez ordezkatzeko, irabazterakoan edo galtzerakoan beti onena ematea, garaipenak gozatzeko eta porrotetatik ikastea, aurrerengandik doan jaso duguna doan itzultzea, taldearenganako maitasuna...

**Zelan jokatzeko zenuen?**

Tabirakok 50 urte baino gehiago iraun badu, erabaki on asko eta hutsune batzuk eduki dituelako izan da. Hala ere, bagenekien jokalaritza bakoitzaren ekarpenari bere balioa ematen. Saskiratzen duenak, distiratzeko duenak badu bere saria. Baina badago

entrenamenduetan inoiz hutsik egiten ez duen jokalaritza hori, jarelkuan dagoenean animatu egiten duena, duen guztia ematen duena, ez duena saskiratzen horretarako dohainik ez duelako, baina defentsan ona dena.

**Tabirako taldearen norabidea aldatu zenutenean, taldea heldu den lekura heltzerik espero zenuten?**

Barrutik bizi duzunean, ez duzu horrelakorik planteatzen. Taldearen norabidean eragina izan duten bizpahiru momentu garrantzitsu izan direla esango nuke. Lehenengoa izan zen herri honek harrobia behar zuela pentsatu genuenean. Indautxun, esate baterako, eskolako taldea egiteak badu bere zentzua, Bilbo askoz handiagoa delako. Baina Durangon akatsa izango litzateke harrobi hori Jesuiten ikastetxean bakarrik abiatzea. Beraz, haurrak entrenatzen hasi ginen. Loiolatik etortzen nintzen, eta zapatuetan eta domeketan entrenatzen genuen. 13 urte zituzten. Jon Mikel Rodríguez horrela hasi zen, eta entrenatzaile handi izatera heldu zen. Hasieran

Tabirako-Loiola deitzen zen, baina, ondoren, Tabirako izenagaz utzi genuen. Bigarren momentua kokatuko nuke Jon Mikel ikastolan entrenatzen hasi zenean. Bertako eskola umeak entrenatzen hasi zen Tabirakoren oinarri gisa. Eskolarteko txapelketan Tabirako-Jesuitak, edo Tabirako-Kurutzia deitzen dira, baina kadeteetatik aurrera, Tabirako da. Eta, hirugarrena, Zipri Zabala Neversen gauza bera egiten hasi zenean nesken taldea entrenatzen, baina Tabirakoren barruan. Beraz, Durangoko saskibaloitzailearen garapena Tabirakoren babesean egin da. Gazteak beraien ikastetxeak eta beraien klubekoak sentitzen ziren.

**Zailtasunak ere izango ziren.**

Boluntariotza mantentzeak, ez ordaintzeak zalantza sortzen zituen. Hainbeste talde dituzunean ematen du ez dela bideragarria, baina nik beti esan diet Tabirakok bazkideen batzarra duela, eta momentu batean beste zer edo zer erabakitzen badute, errespetatu egin beharko dela. Baina zailtasunak ikusten dituztenei esaten diet ez pentsatzeko lehen erraza zenik. Zailtasunak beti egon dira, eta aurrera egin dugu. Beste batzuek beraien harrobiagaz zer egiten duten begiratzen duzu, eta, ohartzeko zara, ordaindu arren ere, ez direla gu baino askoz hobekiak. Tabirakok Bizkaian eta Euskadin maitasun handia jasotzen badu, desberdina garelako dela uste dut.

**Durangotik kanpo zaude orain. Zelako agurra izan zen?**

Ni Jesuita naiz, eta horrek esan nahi du misio unibertsal bat dugula. Giza balioen girotik nator, eta horrek mugitu nau beti. Eraikundea ni baino gehiago da, eta, eskatzen badidate, ni prest nago behar dutenerako.

**Hainbat sari jaso dituzu zure bizitzan, baina Teila sariak zer edo zer berezia du zuretzat?**

Txiki sentitzen naiz. Ni hezkuntza eta kirol arlotik nator. Ondare historikoa, artistikoa eta kulturala bultzatzen duen Gerediagak saria ematea berezia da. Gainezka egin dit, eta lotsatuta nago. Durangoko Udalak ere saria eman zidanean antzera izan zen. Eskerrak eman gura dizkiet nire familiari; Jesusen Lagundiari, beti utzi didalako ikastaroetara joan, eta tituluak ateratzen; Tabirakoko jendeari; eta Durangoko Udalarari. Juanjo Moreno dena da jende horrek guztiak egin duenarengatik.



# JAIAK!

## San Antonio

2015eko URTARRILA | BERRIZ



**Berrizko Udalak jai  
zoriontsuak opa deutsuez**

[www.berriz.org](http://www.berriz.org)





# BERRIZKO JAIEN EGITARAUA

## URTARRILAK 11 DOMEKA

**10:00** Mendiko bizikleta martxa.  
Izen-ematea eta irteera Olakueta plazan. Izena ematea doan.

## URTARRILAK 16 BARIKUA

**18:30** Olakuetan kalejira Berrizko gaztetxeko batukadagaz.

**19:30** Sagardotegi Ibiltaria eta erromeria trikitilariekin, Olakueta plazan. Ondoren, odoloste-jana olakueta plazan.

**20:30** Olakuetarrek ibilalditxo egin ostean, Donien Atxa altxatuko dute Olakueta plazan.

**21:30** San Antonio VIII. Pilota Txapelketa: finalak. Olakueta pilotalekuan.

## URTARRILAK 17 ZAPATUA SAN ANTONIO EGUNA

**12:00** Meza, San Antonio basilizan.

**12:30** Poxpolo eta Konpainia pailazoak, Olakueta pilotalekuan.

**18:00/22:00** Erromeria, Luhartz taldeagaz.

## URTARRILAK 18 DOMEKA

**11:00** Eskualdeko 34. Barazki eta Fruitu Erakusketa probalekuan.

**11:00** Artisau txokoa pilotalekuan.

**12:00** Baserriko oilasko dastaketa, Olakueta plazan.

**12:30** Meza, San Antonio basilizan.

**13:00** Ireminiñe dantza taldeak eta San Lorentzo dantza taldeak eskainitako ekitaldia, Olakueta plazan.

**19:00** The Upper Room gospel taldea, San Antonio basilizan.

## URTARRILAK 19 ASTELEHENA

**16:30/18:30** Barrakak 0,50 euroan izango dira.

**19:00** Askaria eta nekazaritza olinpiada pilotalekuan. Sarrera euro 1. Ikuskizuna, txorizo otartekoa eta edaria (amaitu arte).

## URTARRILAK 27 ASTEARTEA

**20:30** Donien Atxa kenduko da.

**21:00** Olakuetarren afaria.

SAN ANTONIO, 1.  
48.240 BERRIZ BIZKAIA  
TEL: 94.682.62.46



**pedrojuan**  
J A T E T X E A



**MAPFRE**

Zure konfiantzazko seguru etxea  
Geltoki kalea, 9 - Berriz 48240  
94 498 41 90  
forunaa@mapfre.com

**HIERROS**  
**RIEZU S.A.**  
burdinak eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131  
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net



**Ibai Ondo**  
Ferreteria · Burdindegia

Iturriza, 10  
946 824 489  
f 946 824 489  
ferreteriaibaiondo@gmail.com  
BERRIZ

Liburudenda

**Amalux**

aldizkariak  
papera  
opariak

Iturriza, 29 Berriz Tel.: 946 826 248



# Nekazaritza erakusketa eta olinpiadak, San Antonio jaietan galdu ezin diren zitak

Urtarrilaren 16an igoko dute Donien Atxa Olakueta auzoan, hilaren 27ra arteko jaiak ospatzeko



Hilaren 16an altxatuko dute Donien Atxa Olakueta auzoko bizilagunek.

**> JAI GIROA** Markel Onaindia Urtarrilaren 11n hasiko dira Berrizko San Antonio jaietako ekintzak, baina Donien Atxa ez dute hilaren 16ra arte igoko Olakueta. Hortik aurrera, eta hilaren 27ra arte, jai giroa nagusituko da Berrizen, askotariko ekintzaz betetako egitarau bati esker. Programa horretan galdu ezin diren hitzordu bi daude: batetik, Eskualdeko 34. Barazki

eta Fruitu Erakusketa, eta, bestetik, Nekazaritza Olinpiadak.

Domekan, urtarrilaren 18an, baserriko produktuekin osatutako azoka ospatuko da. 11:00etan hasiko den azoka berezia izaten da; izan ere, baserriar bakoitzak bere produkturik onenak eroaten ditu, eta guztiak batera ipintzen dituzte salgai. Beraz, banaka barik taldean egiten dute salmenta; kutxa komuna

egiten dute saltzaileek, etekinak guztien artean banatzeko. Herriko probalekuan garatuko da ekimena.

Egun horretan bertan, 11:00etatik aurrera artisauen txokoa ipiniko dute pilotalekuan.

## Olinpiada bereziak

Hilaren 19an etorriko da azkeneko urteetan indar handia hartu

duen ekitaldi bat: Nekazaritza Olinpiadak. Olinpiada horiek ere bereziak izaten dira. Baserriko produktu eta tresneria erabilia egiten dituzte jokoak. Adibidez, kide batek beste taldekide bat eskorgan eroatea izaten da probetako bat. Kuadrillaka parte hartzen dute herritarrek, eta giro aparta sortu ohi da pilotalekuan.

Sarrera euro batean ipintzen dute antolatzaileek, baina trukean olinpiadek eskaintzen duten ikuskizuna, txorizo pintxo eta edatekoa eskaintzen dituzte. Zuzenean ikustea merezi duen ekitaldia da, beraz. Ekitaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko dela esan dute antolatzaileek.

## Olakuetarren jaiak

San Antonio jaiak hasi eta amaitzean protagonismo handia edukitzen dute Olakueta auzotarrek. Hilaren 16an eurek altxatuko dute Donien Atxa, iluntzeko 20:30ean. Aurretik, baina, gaztetxeko batukada taldeak girotuko duen kalejiran elkartuko dira, 18:30ean. 19:30ean Sagardotegi Ibiltariaz gozatzeko aukera edukiko dute, trikitalariekin eta sagardo upelekin.

Gainera, odoloste-jana ere prestatuko dute iluntze horretarako. Olakuetarrek ibilaldira bat egingo dute Donien Atxa eurgaz hartuta, eta, aurretik aipatu bezala, 20:30ean igoko dute, jaiari hasiera ofiziala emateko.

**Domekaz ospatuko dute baserriko produktuekin urtero osatzen duten azoka**

**Euro len truke olinpiadak, txorizo pintxo eta edatekoa eskaintzen dituzte**

## Agurra, 27an

Urtarrilaren 16tik 19ra bitartean egongo dira batez ere jaietako ekitaldiak. Edozelan ere, hilaren 27an jaitziko dute Donien Atxa. Ekintza hori, urtero legez, jai giroan garatuko dute olakuetarrek. 20:30ean elkartuko dira jaietako ikurra kentzeko, eta 21:00etan auzotarren afaria egingo dute, aurtengo San Antonio jaietako giro alaiaren emateko.

# Luhartzen erromeria, San Antonio eguna ospatzeko

18:00etan eta 22:00etan hasiko diren saio bi eskainiko dituzte Luhartzekoek

## > MUSIKA M.O.

Urtarrilaren 17ko San Antonio eguna ospatzeko Luhartzen erromeria ipini dute antolatzaileek. Arratsaldez zein gauz egongo da dantza egiteko aukera. Izan ere, 18:00etan eta 22:00etan hasiko diren saio bi eskainiko dituzte Luhartzekoek. Udan herririk herri ibiltzen dira euren erromeriagaz, baina

**Meza egongo da 12:00etan, eta Poxpolo eta Konpainia pailazoen ikuskizuna 12:30ean**

neguan ere topatzen dute jaiaren bat musikariek. Bestalde, patriaren egun horretan, eguerdian meza egongo da, 12:00etan; Poxpolo eta Konpainia pailazoen txanda izango da 12:30ean.

Musikagaz lotuta, hilaren 18an The Upper Room gospel taldeak kontzertua emango du San Antonio basilizan, 19:00etatik aurrera.



Luhartzekoek urtarrilaren 17an joko du Berrizen.

**AZKONDO**  
TV  
SONIDO  
VIDEO  
ELECTRONIKA

**AZKONDO**  
ELEKTROTRESNAK

Iturriza, 8 - Berriz - 946 824 293

Iturriza kalea, 9  
Tel.: 946 824 009  
48240 BERRIZ

**fonda**  
TABERNA

**ORLEGI** TABERNA

Iturriza, 5 BERRIZ  
Tel.: 946 824 828

**DIA** %

Zengotitabengoa  
BERRIZ  
946 824 215



**Ekaitz Barrainkua** | Mendiko bizikleta martxako antolatzaileetako bat | Berriz, 1981

# “Berrizko mendi martxan inoiz ez da egin aurten egingo den amaierako tartea”

Berrizko mendi martxa antolatzen ibili ostean, domekan martxako parte-hartzaile bihurtuko da Ekaitz Barrainkua

**> BIZIKLETA** Joseba Derteano Berriz Bizikletari Elkarteak herriari tradizio luzea duen mendiko bizikleta martxa antolatu du domekarako. Olakueta plazan hasiko da, 10:00etan. Izenematea doakoa da, eta egunean bertan egin ahalko da 08:30etik aurrera. Iazko aldia inoizko jendetsuena izan zen 800dik gora parte-hartzailegaz. Ekaitz Barrainkua antolatzaileetako bat da, eta, gainera, lasterketan parte hartuko du.

**Zenbat ibilbide prestatu dituzue?**

Ibilbide bi daude aukeran; 23 eta 32 kilometroko bana. Ezarritako erreferentzia puntu batera denbora jakin batean heltzen direnak ibilbide luzera bideratuko ditugu, eta gainerakoak laburren. Gure inguruak aukera asko ematen dituzenez, urtetik urtera tarte berriak sartzen edo daude txandatzatzen saiatzen gara.

**Zeintzuk dira aurtengo nobedadeak?**

Inoiz ez da egin aurten egingo den amaierako tartea; Andikoantik jaitsiera desberdin bat lortu dugu; baso bidea da, eta, une batean, zelai zatitxo bat dago. Bestelakoan, Berrizen hasi eta Andikoantik Garairantz joango gara. Ondoren, iaz bezala, Maumeko tartea sartu dugu ibilbidean, baina beste toki batetik sartuko gara. Izan ere, konturatu gara, bide politik izan arren, bide estuak badira, martxan jende askok parte hartzen duenez, inbutuak sortzen direla eta ibilbideaz ez dela nahi dugun moduan gozaten. Ondoren, Maumetik Oizerantz etorriko gara, eta Andikoantik Berrizera. Amaieran, luntxa egongo da parte-hartzaileentzat.



**Lehia handia egoten da?**

Ez da martxa lehiakorra, eta dirua egitea ere ez da helburua; udalak laguntzen digu, eta martxan parte hartzea doakoa da. Berrizen mendiko bizikletan ibiltzeko zaletasuna izan dugu beti, eta helburua bizikletazaleak batzea eta ondo pasatzea da.

**Zeuk ere parte hartuko duzu?**

Bizikletan nenbilela erori egin nintzen, klabikula apurtu nuen, eta, ondorioz, iaz ezin izan nuen parte hartu, baina aurten irteeran egongo naiz, duda barik.

**Kirolari sutsua izan zara umetik, eta ia beti bizikletari lotuta.** Gazte mailara arte Ciclos Iturriaga taldean ibili nintzen errepidean. Ondoren, futboleko hasi nintzen Berrizen. Iñaki Lejarretagaz eta mendiko bizikletan ere

ibiltzen nintzen, eta, gustatzen zitzaidanez, mendiko bizikletan hasi nintzen. Gero, gaztetan niaz gaz errepidean ibili zirenek Garaiko triatloi taldea sortu zuten, eta, giro ona zuten eta probatzeko gogoia nuen, taldera batu nintzen.

**Triatloiak hainbat kirol menperatzea eskatzen du.**

Bai, bai. Igeriketan, esaterako, oinarri bat banuen, baina teknikoki txarra nintzen. Baina, entrenamenduetan ordu batzuk sartuz gero, hobetu egin da. Lehen aipatu dudan moduan, iazko urtarrilean klabikula apurtu nuen, eta horrek igeri edo korrika egitea eragozti zidan. Gainera, kontuan hartuz gero gaur egun triatloiak antolatzeke dauden eragozpenak, eta aintzat hartuz gero nire gus-

tukoak zirenetako asko bertan behera geratu zirela, bizikletan zentratzea erabaki nuen. Baina triatloiak ez ditut utzi. Lizentzia

“

*Iaz ezin izan nuen martxan parte hartu, eroriko batean klabikula apurtu nuelako”*

aterako dut, eta, beharbada, probaren batean parte hartuko dut.

**Bizikletara itzuli zara, baina aurretik probatu bako espezialitatea izan duzun ziklo-krosara.** Kasualitatez izan da. Garaiko triatloi taldeko Jon Sarasua eta biok horri buruz berbetan ibili

ginen. Negua luze egiten zela eta ziklo-krosa erronka polita izan zitekeela pentsatuta hasi ginen. Ciclos Iturriagako Eneko Iturriagak lagundu digu materiala-gaz zein mekanikagaz.

**Zelako balorazioa egiten duzu amaitzean denboraldiaz?**

Ona. Ziklo-krosako bizikleta lehenengoz probatu nuenean, barregura eman zidan: “Ez dut lasterketarik amaituko”, pentsatu nuen. Baina, ibilian-ibilian, teknika hobetu egin da. Ziklo-krosak teknikatik gehiago du fisikatik baino. Berrizen zarpigarren, Arbulun hamargarren eta Euskadiko Txapelketan hamaseigarren sailkatu naiz. Oso pozik nago. 2015ean ere arituko naiz. Bitartean Euskadiko Opetako lasterketak egingo ditut mendiko bizikletagaz.

**A&L**  
**AZPIRI LEJARDI**  
 Correduría de Seguros S.L.  
 Geltoki kalea  
 48240 Berriz  
 946 824 937  
 info@azpirilejardi.com  
 www.azpirilejardi.com

**ETXEBARRIA**  
 ESTANCOA  
 Iturritza, 14  
 Tel./Faxa: 946 827 958  
 BERRIZ

**Juliantxu**  
 Jatetxea  
 94 682 40 77 - 48240 Berriz (Bizkaia)





## Zornotza Aretoan estreinatuko du 'Kixote' antzezlana Markeliñe talde zornotzarrak

Umeei zein helduei zuzenduriko antzezlana da Markeliñek gaur eta bihar Zornotzan eskainiko duena

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Cervantesen Kixote eta Santxo pertsonaien izaerak hartu ditu Markeliñe taldeak gaur eta bihar Zornotzan eskainiko duen antzezlana osatzeko oinarri. Laguntasunari buruzkoa da Zor-

notzako taldearen azken obra: Kixote ameslari eta zoroari, eta Santxo errealista eta pesimistari buruzkoa. "Zergatik izan behar dugu denok berdinak?" eta "zer gertatzen da gizarteko arauetatik kanpo geratzen gare-

nean?"; horiek dira, besteak beste, antzerki taldeak planteatu dituen galderak. Izan ere, Kixote pertsona konbentzional bihurtu gura du Santxok, baina horrela haren nortasuna galduko luke lagunak. Beraz, bestelako galde-

ra bat ere mahaigaineratzen du obrak: "Santxok zergatik ez dio uzten Kixoteri bere ametsetan murgilduta bizitzen?". Lagunari hegalak moztu, edo aske eta den bezalakoa izaten utziko dion erabaki beharko du Santxok.

Prozesu luzeetan sorturikoak izaten dira Markeliñe antzerki taldearen antzezlana, eta urtebeteko lana du *Kixote* antzezlana ere. Izan ere, beste norbaitek sorturiko testua antzerki bihurtu barik, hasierako ideiatik tiraka taldekideek eurek sortzen dute testua, eta eurek ematen diote forma ikuskizunari. Jon Kepa Zumalde Markeliñeko taldekideak azaldu duenez, "jolasen bitartez hasten gara eszenak sortzen, horiek lotzen, eta, gutxinaka, ikuskizunari erritmoa ematen".

Azken hiru urteetan urtarrilean estreinatutako obrak bezala, Gabon aurreko egunetan, Zornotzako Lauaxeta ikastolako eta Gatikako eskolako umeei eskaini diete Markeliñe taldekoak antzezlana. Umeen inpresioak jasotzen dituzte estreinaldiaren aurreko emanaldi horietan: zer gustatzen zaien gehien, zelan erreakzionatzen duten... Oso pozik daude orain arteko erreakzioekin. Jon Kepa Zumalderen berbetan, "estreinaldira sendoago joateko, oso baliagarria zaigu emanaldi horietan lorturiko informazioa".

Taldekidearen hitzetan, Markeliñeren helburua beti da aurrera egin, eta gauza berriak probatzea. Gaur eta bihar estreinatuko duten *Kixote* obraren kasuan, zirkuaren munduan murgildu da Markeliñe antzerki taldea, lehenengoz. Eta, esate baterako, Maitane Azpiroz trapezistaren mugimenduek irudikatzen dute Kixoteren ametsetako mundua.

## Taularaturiko gaiez berba egiteko gonbidapena, umeei zein helduei

Laguntasunari buruzko irakurketa egiten du Markeliñek 'Kixote' obran



Hiru emakumezkoak dihardute 'Kixote' antzezlanean, agertokian.

"6-7 urteko umek eta 12-13 urteko gazteak obra osoan adi mantentzeko formula magikorik ez dago", dio Jon Kepa Zumalde Markeliñeko kideak: "Geu ere harritu egiten gara, hainbat obragaz hori lortzeko gai izan garelako: testurik ez dugu erabiltzen, oso irudi plastikoak darabilzkigu, eta istorioak berbarik barik eta jolasen bidez kontatzeak umek oso gertu mantentzen ditu. Eta umek gustuko dituzten gauzek helduak ere harrapatzen dituztela uste dugu".

Gogoetarako gaia eskaintzen dute Markeliñeren antzezlana: gerraz, minbiziaz, alzheimerraz, adiskidetasunaz

eta ekologiaz aritu izan dira, esaterako, azken antzezpenean. "Gonbidapena egiten dugu gurasoen eta umeen arteko harremanerako, antzezlana ikusi eta gero bertan taularaturiko gaiez berba egin dezaten. Nahi izanez gero, gurasoek badute balio batzuk lantzeko aukera".

Emakumezkoak dira *Kixote* lanean diharduten hiru aktoreak. Duela 30 urte, Markeliñe sortu zutenean, gizonezkoak zirela azaldu du Jon Kepa Zumaldek, baina apurka-apurka emakumeek dagokien lekua hartu dute: "Azkenaldian emakumeek daukate taula gainean garrantzirik edo pisurik handiena, eta obra honetako aktore taldea ere maila gorenekoa da".

Hamabi lagunek osatzen dute gaur egun Markeliñe antzerki taldea, eta denek hartzen dute parte eszenografian, lan artistikoan, gidoian, argiztapenean zein zuzendaritzan.



## 'Lurrean etzanda' diskoa aurkeztuko du Ruper Ordorikak Arriolan, gaur

Hamaika kanta biltzen dituen disko berriko kantak joko ditu Ordorikak Elorrioko antzokian

**> MUSIKA** Itsaso Esteban Elorrioko Arriola kulturgune-ko 2015. urteko programazioa zabalduko du Ruper Ordorika (Oñati, 1956) musikariak gaur. Plazaratu berri duen *Lurrean etzanda* diskoak kantak eskainiko dizkiete Ordorikak eta taldekideek, 22:00etan hasita, Arriolan biltzen diren entzuleei. Abenduaren 20an, Bilboko Kafe Antzokian jo zituzten disko berriko doinuak lehenengoz.

Euskal musikagintzako bere kanta kuttunen bertsioak eskaini zizkien zaleei Ruper Ordorikak iaz kaleratu zuen *Azukre koxkorak* diskoan. Bestelakoa da azaro amaieran kaleratu duen diskoaren sorburua: musikariak adierazi duenez, "esateko behar" batetik sortu-

rikoak dira *Lurrean etzanda* diskoak. Dionisio Cañas idazlearen *Zerutik gertu ez da ondo egoten* kantaren euskarazko egokitzapena kenduta, disko berriko kanta guztiak Ordorikak idatzitakoak dira.

"Oroimenaren garrantzia, maitasunaren beroa eta bizitzaren edertasuna" adierazteko kantak dira

Diskoaren aurkezpen orrian azaltzen denez, "oroimenaren garrantzia, maitasunaren beroa eta bizitzaren edertasuna" azpimarratu gura ditu Ruper Ordorikak kantuotan.



Abenduaren 20an, Bilboko Kafe Antzokian jo zituzten kanta berriak lehenengoz.

Leo Abrahams, Simon Edwards eta Kenny Wollesen nazioarteko musikari entzute-

tsuek lagunduta, iraileko lehenengo asteburuan grabatu zuen *Lurrean etzanda*.

### GEURE DURANGALDEA

MIKEL ONANDIA

Arte historialaria



### Margotutako erregeak

D.W. Griffith estatubatuarren *The Birth of a Nation* (1905) filmean, historiako lehen superproduzio zinematografikoa kontsideratua, pertsonaia beltzak errepresentatzeko sarritan betunez margotutako aktore zuriak agertzen dira; zuzendariaren ideologia arrazistagatik esplikatzeko da hori.

Fermin Muguruzaren eskutik sortu *Black is Beltza* komiki bikainean kontatzen da, 1965ean, New Yorkeko Bosgarraren Hiribidean desfilatu behar zuten Iruñeko sanferminetako erraldoien konpartsak –gonbidatua izan arren– erraldoi beltzak albo batera utzi behar izan zituela, arrazagatik bereizkeria zela-eta debekatuta.

Astelehen iluntzean Durangora Errege magoak heltzean azkena beltza zela konturatu ginen. Orain gutxi arte, New Yorken ez bezala, errege beltzari desfilatzen uzten zitzaion gurean –nahiz eta Biblian agertu ez eta XIV. mendera arte ikonografia kristauak bereganatu ez, gure imaginarioan modu sakonean dago txertatua–, baina kurioski beltzez margotutako gizon edadetu bat izaten zen. Arrazismo hutsagatik izango ez bazen ere, normala zen exotikoa zena errepresentatzeko bertako bat mozarrotzea. Ez ginen asaldatzen Griffithen filmaren edo Muguruzaren komikiaren aurrean bezala –beltzak ezin ziren aktore izan, eta ezin zuten Manhattanen desfilatu, panpinak izan arren–.

Errege beltzaren errepresentazioa anekdotikoa iruditu arren, gure imaginario bisuala gizartearen isla dela adierazten digu. Erronka orain normalizat eta etorkizunean eskandalagarritzat hartuko ditugunak denboraz identifikatzea da.

## Camusen 'Los justos' antzezlanaren moldaketa eskainiko dute Berrizen

611 Teatro talde madrildarrak Berrizen eskainiko du 'Los justos' obra, bihar



1979an eta Madrilan kokatu du 611 Teatro taldeak antzezlan.

### > ANTZERKIA

Albert Camus idazleak 1950. urtean argitaratu zuen *Les justes* antzezlanaren moldaketa izango da, bihar, Berrizen ikusgai.

Kultur Etxean eskainiko du 611 Teatro talde madrildarrak *Los justos*. Errusiako iraultzan, 1905ean kokatu zuen istorioa Camusek; eta Madrilan, 1979an,

kokatu dute Javier Hernández-Simón eta Jose Antonio Pérez bilbotarrek.

Antzerkigileek azaldu duteenez, "Camusen jatorrizko testua

gureru ekarri, eta ETaren jardunaren eta indarkeria oren zentzubakokeria" adierazi gura izan dute euren moldaketagaz: "ETari buruzko eta ETaren kontrako obra da *Los justos*", obraren aurkezpen orrian esaten denez. Antzezlanaren bitartez, hainbat galdera plazaratu gura dituzte egileek: "Justua al da justiziaren izenean inor erailte? Zenbat pertsona hil daitezke helburuak bitartekoak justifikatu ditzan? Nork erabakitzen du hori?"

Madrilen, 1979an, kokatu dute Hernández-Simón eta Pérez antzerkigileek euren kontakizuna

Iazko urte hasieran Durangoko San Agustinen eskaini zuten *Los justos* antzezlan Euskal Herrian lehenengo aldiz.

San Agustinalde, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

**Quijote**  
Markeliño Antzerki Taldea  
Urtarrilaren 18an  
18:00etan

**De cuerpo presente**  
(una comedia de muerte)  
Glu Glu producciones  
Urtarrilaren 17an - 20:00etan

San Agustín KULTUR GINEA  
URRARRILAK 17

**PLATERUENA**

**Durangoko Kafe Antzokia**  
www.plateruena.net

<p>URTARRILAK 9 22:30ean 8/10€</p> <p><b>PORCO BRAVO + THE RIFF TRUCKERS</b> MUSIKA KONZERTUA</p>	<p>URTARRILAK 16 19:00etan DOAN</p> <p><b>MENDIAK HURBILDUZ</b> FILM LABUR LEHIAKETAREN II. EDIZIOA Nico eta Olivier Favresse / Sean Villanueva MENDIAK HURBILDUZ</p>	<p>URTARRILAK 17 22:30ean 15/18€</p> <p><b>EL COLUMPIO ASESINO + WE ARE STANDARD</b> MUSIKA KONZERTUA</p>
---	---	---

**EGUNEKO MENUA**  
ASTELEHENETIK LARUNBATERA

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300



**Kirola**

# Favresse anaiek eta Sean Villanuevak abentura eta musika ekarriko dituzte

Mendiak Hurbilduz jaialdia ospatuko dute urtarrilaren 16an, Plateruena Kafe Antzokian



Favresse anaiek batera gozaten dute mendiaz eta musikaz.

**> MENDIA** **Markel Onaindia**  
Nicolás eta Olivier Favresse anaiek eta Sean Villanueva belgikarrek parte hartuko dute, hurrengo barikuan, Durangoko Plateruena Kafe Antzokian ospatuko den Mendiak Hurbilduz jaialdian. Mendi arloan ezagunak dira, besteak beste, 2011n Urrezko Pioleta saria jaso zutelako, Groenlandian egindako espedizioarengatik. Baina bestela ere ezagun egin ziren 2013an, Vodafone enpresaren iragarki

Iragarkian 'Don't worry, be happy' abestia kantatzen zuten mendian, horma batetik eskegita

bateko protagonista izan zirelako. Iragarkian *Don't worry, be happy* abestia kantatzen zuten mendian, horma batetik eskegita, behean sakonera handia eta

lainoak zituztela. Iragarkiak ondo batzen zituen taldearen ezauzgarriak: alaitasuna, abentura eta musika. Izan ere, mendira musika tresnak eramateko ohitura dute, euren argazki eta bideoetan erakusten duten legez.

Urtarrilaren 16an, Groenlandiako pasadizoak kontatuko dituzte Plateruenean, eta, ostean, kontzertua eskainiko dute, gainera.

Durangaldeko lagun-talde batek antolatzen duen Mendiak

Hurbilduz jaialdiaren hiru-garren edizioa da aurtengoa. 19:00etan hasiko da, eta belgikarren aurretik beste saio bi ere egongo dira. Lehenengo, jaialdiaren harira landu duten film laburren lehiaketako lan finalistak proiektatuko dituzte, eta, gero, sarituak zeintzuk izan diren esango dute.

Groenlandiako pasadizoak kontatuko dituzte, eta, ostean, kontzertua eskainiko dute

Jaialdiaren harira landutako film laburren lehiaketako lan finalistak proiektatuko dituzte

**Atxarteko bizipenak**  
Bestetik, Atxarte Bizirik taldeko kideak gonbidatu dituzte jaialdira. Aurten 25 urte beteko dira Atxarteko harrobia itxi zenetik, eta, horregatik, gertaera hura gogoratzeko, hainbat ekitaldi prestatzen dabilta ekaineko. Efemeridea kontuan hartuta hartuko dute parte Atxarte Bizirik taldeko kideek Plateruenean, eta Atxarten bitzako borroka ekarriko dute akordura, argazki eta guzti.

**AGENDA****> FUTBOLA****BIGARREN B MAILA**

**Amorebieta - Athletic Club B**  
· Zapatuan, 16:00etan, Urritxen.

**MAILA GORENA**

**Zaldia - Moraza**  
· Domekan, 17:00etan, Solobarrian.

**LEHEN ERREGIONALA**

**Berriz - Galdakao**  
· Domekan, 19:00etan, Berrizburun.

**BIGARREN ERREGIONALA****Iurretako B - Montefuerte**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

**HIRUGARREN ERREGIONALA****Durangoko Bikainak - Iberlanda**

· Domekan, 16:30ean, Arriapusuetan.

**Elorrio B - Lemoaberri**

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

**> ARETO FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA****Elorrioko Buskantza - Lagun Onak**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioren.

**EMAKUMEEN LIGA**

**Sasikoa - Elorrioko Buskantza**  
· Zapatuan, 15:45ean, Durangon.

**> SASKIBALOA****ZILARREZKO ADECCO LIGA****Zornotza - Caceres**

· Domekan, 12:00etan, Larrean.

**> ERRUGBIA****OHOREZKO B MAILA****DRT - Valladolid**

· Zapatuan, 17:00etan, Durangon.

**EUSKAL LIGA (emakumeak)****DRT-Urbe - Hernani**

· Zapatuan, 15:00etan, Durangon.

## Bakaikoa eta Agirre-Gorrotxategi bikotea irabazle Olazar txapelketan

Binakako finala gogorra eta emozioz betetakoa izan zen: 22-20

**> PILOTA** **Joseba Derteano**  
Urtezahar egunean Olazar Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten Zaldibarren. Banakako txapela Joanes Bakaikoarentzat izan zen, eta binakakoa Agirrek eta Gorrotxategik osatutako bikotearentzat.

Urtero legez, pilotalekua bete egin zen finalak bertatik bertara jarraitu gura zituzten zaleekin. Lau t'erdiko finala jokatu zuten lehenengo, eta Bakaikoak 22-13 irabazi zion Elizalderi. Bakaikoa aurretik joan zen partidu osoan. Hala ere, partidu

erdira arte final estua jokatu zuten. Baina markagailuan 9-8 zihoazela, Bakaikoak 11 tanto segidan egin zituen (20-8), eta finala erabakita geratu zen. Elizalde markagailua txukundu zuen, baina ez zen nahikoa izan Bakaikoa estutzeko: 22-13.

Binakako finala askoz orekatuagoa izan zen: Agirrek eta Gorrotxategik 22-20 menderatu zituzten Santxo eta Erasun. Partidu erdira Santxo eta Erasun aurretik heldu ziren: 6-11. Orduan heldu zen irabazlearen erreakzioa, eta markagailuari

buelta eman zioten: 14-12 eta 20-15. Hala ere, azken unera arte emozioa izan zen nagusi.

**Trinketeko finalak**

Bestalde, joan zen domekan, Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak jokatu zituzten Abadiñon. Nagusien Lehen Mailako finala Inhar Ugarterentzat izan zen; 40-29 menderatu zuen Asier Aspuru abadiñarra.

Nagusien Bigarren Mailako txapela Uribek jantzi zuen, gazte mailakoa Yurrebasok, eta kadeteetakoa Kamiruagak.

## Zornotzako krosa Ugandako eta Keniako korrikalarientzat

Gizonen proba esprint ikusgarriagaz amaitu zen

**> KROSA** **Joseba Derteano**  
Zornotzako 61. Nazioarteko Krosak emozioz betetako lasterketak utzi zituen joan zen domekan, Jauregibarriako landetan. Gizonetan Timothy Toroitich eta Moses Kipsiro ugandarrek lehia estua mantendu zuten helmugako marra bera zeharkatu arte. Biak batera heldu ziren azken txanpara, eta emozioz betetako esprinta eskaini zuten. Baina Toroitich izan zen irabazlea oso-oso gutxiagatik; azken metroan gorputza aurrerantz luzatu, eta zentimetro gutxiga-

tik lortu zuen garaipena. Europako Txapelketan brontzezko domina irabazi zuen Alemanyehu Bezabeh korrikalariak osatu zuen podiuma.

Emakumeetan 21 urteko Magdaline Masai keniarra izan zen onena. Gaztea den arren, azken hiru aldietan berak irabazi du Zornotzako krosa emakumeetan korrika egiteko dituen dohainak erakutsita. Iris Fuentes-Pila sailkatu zen bigarren, irabazlearengandik 11 segundo-ra. Jacqueline Martin korrikalaria sailkatu zen hirugarren.



# Emakumeen derbia berreskuratuko dute Sasikoak eta Elorriokok

Elorrioko Buskantzak aurten sortu du taldea

**> ARETO FUTBOLA** J. Derteano Bost urteko parentesiaren ostean, areto futbolak Durangaldeko talde biren arteko derbia berreskuratuko du bihar, 15:45ean, Landako kiroldegian. Sasikoa eta Elorrioko Buskantza izango dira aurrez aurre.

Orain bost urte Durango Kulturala eta Kurutzaga, ordura arteko emakumeen talde biak, desagertu egin ziren. Orain, areto futbolak Durangaldean dituen bi klub indartsuenei esker, bueltan da berriro derbia. Sasikoak orain lau urte sortu zuen emakumeen taldea, eta Elorrioko Buskantzak aurtengo du lehen denboraldia.

Sasikoak esperientzia handiko jokalaria ditu, eta talde egina da. Iaz legez, aurten ere sailkapeneko goialdean dabil, lidergotik hiru puntura. Mailako bigarren talderik goleatzaileena ere bada 63 golekin. Elorrioko Buskantza, aldiz, talde gaztea

da, eta, batez ere, 18 eta 23 urte arteko jokalariek osatzen dute. Orain arte 25 gol sartu ditu, Sasikoak baino 38 gutxiago. Testu inguru horretan Sasikoa derbia irabazteko faborito argia da.

Iaz areto futbola utzi zuen Iñigo Astarloak hartu du taldearen gidaritzatza. “Pozik” dabilela dio, jokalarien aldetik “ikasteko go-goa” ikusten duelako. Derbiari begira, “baloiaren jabetza izatea gustatuko litzaiguke, baina aurkariaren maila ikusita, atzean gogor eusten eta kontraerasoan irteten saiatuko gara”. Sara Hawari, Sasikoako jokalaria eta kapitaina, ez da fidatzen: “Nire ustez, aurrera egingo dute, eta partiduaren bila irtengo dira. Gazteak dira, eta korrika asko egiten dute. Gainera, gu baino jokalaria gehiago dituzte. Gogor lan egin beharko dugu: faborito izateak bakarrik ez du garaipenik ematen”. Talde biek dituzte jokalaria gazte eta dohatsuak.



Elorrioko Buskantzen aurtengo taldea.



Sasikoa taldearen aurtengo taldea.

Horren erakusgarri da joan zen asteburuan autonomien arteko 21 urtez azpiko Espainiako Txapelketan Euskal selekzioaren elastikoa defendatu zutela Elorrioko Maialen Bernasek eta Ibone Simonek, eta Sasikoako Oihane Larrinagak.

Sasikoak aurten liga irabaztea eta Bilboren hegemonia

haustea “ikaragarria” litza-tekeela dio Hawarik, eta bide horretan epaileek eraginik ez izatea espero du: “Epaile hasiberri guztiak gure ligara datoz. Ez dute esperientziarik, eta batzuetan zerikusia handia izaten dute azken emaitzan. Federazioari kexa bidali diogun arren, ez di-gu kasurik egin”.

## > TXIRRINDULARITZA

BZK taldeko txirrindulariek eta arduradunek Iurretako udaltxean egin zuten taldearen aurkezpen ofiziala, abenduaren 30ean. Bertan izan ziren taldea osatuko duten txirrindulariak eta Eneritz Iturriaga zuzendari abadiñarra, besteak beste. Aurkezpenak ikusmin handia eragin zuen, eta udalbatzar aretoa lepo zegoen.

Hauek dira BZKren elastikoa errepidean defendatuko duten bederatzi txirrindulariak: Mar Bonnín, Naia Alzola, Eider Unanue, Aiala Amesti, Ziortza Isasi, Nahia Domínguez, Olatz Agorria, Gloria Rodríguez eta María San José. “Maila duina eskaintzea eta lanak ematea”

dira lehen urteko helburuak BZK taldeko Agus Ruizen esantzan: “Eta lasterketak irabazten baditugu, are hobeto. Anbizio handiko txirrindulariak ditugu, eta dena emango dute”. Euskal taldeen artean Lointek eta Bizkaia-Durangok osatzen zuten “monopolioa haustea” ere izan da taldea sortzeko arrazoi bat, Ruizen hitzetan.

Herbehereetako Itzulia, Marianne Vos klasikoa eta Emakumeen Bira dira aurtengo egutegia osatzen duten lasterketetako batzuk: “Lasterketa guztiak ez dira lehen-lehen mailakoak, baina guztietan hartuko dute maila handiko taldeek parte, eta erronka handiak izango dira guretzat”.

## BZK taldea estreinako urteari aurre egiteko prest

Bederatzi txirrindularik osatuko dute taldea



BZK taldeko txirrindulariak eta arduradunak aurkezpen ekitaldian. Iñigo Garatu

## ADITUAREN TXOKOA



**Koikili Lertxundi**

Futbolaria eta enpresaria

### Olinpotik lokatzera?

Nire kontuekin hasi aurretik, bidezkoa iruditzen zait agur bero bat egitea ANBOTOn irakurle guztiei, gaurkoa estreinaldia baita kolaboratzaile gisa. Ongi etorriak espazio zahar berri honetara. Eta, hasteko, zer hobe azken boladan gertatuko egin buruz idaztea baino?

Askok jakingo duzue, hemezortzi urte eta gero, Otxandio-ko Vulcano futbol taldera itzuli naiz, eta bertan sekulako sorpresa hartu dut. Ilusioz eta gaitasunez jositako jendearekin bat egiteaz gain, futbol profesionaletik afizionaturako jauzia kolpetik gauzatu dut, hainbat lagun harridurarako.

Oraindik sasoiz ikusten nauten arren, futbol profesionalak jendeak uste baino traba gehiago dituela gogoratzen diet, baina zaila da hori ulertzea, arrakasta sozial eta ekonomikoak dena estali ohi duelako. Izan ere, kirolari profesionala *hargi merkatuaren* menpe bizi da. Horretaz 19 urte nituela ohartu nintzen, oraindik afizionatua nintzela. Lesio bat tarteko, *biltegira* pasa, eta talde nahiz fitxa gabe gelditu nintzen. Hortik aurrerakoak ez dira erronka makalagoak izan, baina, behintzat, banekien mundu horretako arauak zeintzuk ziren.

Urteotan, interesez zipriztindutako mundu horretan ibilita, lokatzerako jauzia egitea lagungarria, beharrezkoa eta oso motibagarria suertatu zait, herrikideekin gozatu eta elkarri laguntzeak ez baitauka preziorik. Are gehiago, guretzat, Vulcanorentzat eta herriarentzat zerbait inportantea egiteko gai bagara! Beraz, non dago Olinpoa? Zeruan ala lurrean?



**Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura**

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta  
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194



# EDERTASUN GIDA



**Ana Camarero.**

## Mikropigmentazioa

Ana Camarero estetikazentroa dauka Durangon, eta mikropigmentazio teknika aurkeztera dator atal honetara.

### Zer da mikropigmentazioa?

Aurpegia edertzea, gaztetzea eta orekatzea du helburu, eta emaitza dotorea, naturala eta freskoa lortzen du. Bekainetan emanez gero, aurpegia gaztetzen du; begietan begirada indartu, eta adierazkortasuna ematen du; ezpainen asimetriak orekatzen ditu eta bolumena islatzen du. Teknika diskretua da, eta 24 orduz irudi perfektua edukitzen laguntzen dizu, urteko 365 egunetan.

### Zenbat denbora irauten du?

Bi urtera, asko jota, errebisioa egitea gomendatzen dut, mikropigmentazioaren egoera ikusi, eta erreposo bat behar den ala ez aztertzeko. Bestela, ez du mantentze-lan berezirik eskatzen. Gainera, minari dagokionez, oso eroangarria da, krema anestesikoa erabiltzen dugu eta. Tratamenduaren aurretik alergia azterketak ere egiten ditugu.

### Karua al da?

Eraginak zenbat irauten duen ikusten badugu, teknika merkeenetakoa dela konturatuko gara.



## ILE APAINDEGIAK



## ESTETIKA ZENTROAK

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

**Ana Camarero** urtarrilean DOHAINIK  
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

**Ateak irekitzeko eguna: mikropigmentazioa landuko da**

Visagismo proba (makillajearen bidez aurpegiera zuzentzeko teknika) dohainik urtarrilean. Bekainak, begiak (eyelliner) eta ezpailnak.

Goienkalea, 16-1. esk • 48200 Durango  
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



## DIETETIKA eta NUTRIZIOA

**HIRU FISIOTERAPIA ZENTROAREKIN BATERA**

**Nerea Sarriugarte**  
Dietetika eta nutrizioa

**Antso Estegiz zumardia, 4 48200, DURANGO**  
nesarriugarte@gmail.com  
**666 850 469**



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD**  
Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
